

Ebazpena: R033/2025
Espedientea: E080/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 29a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka aurkeztu du Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurrean (aurrerantzean, ZAEA). Haren helburua da zehaztea non daukan egoitza fiskala 2019ko abenduaren 12tik aurrera AMP ENERGIA EOLICA IBERICA SL enpresak (aurrerantzean, AMP; IFK: XXXXXXXXXX1). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 80/2022 zenbakiko espedientean.

I. AURREKARIAK

- 1.- 2022ko ekainaren 6an, BFAk ZAEARI eskatu zion AMPren egoitza fiskala aldatzea, 2019ko abenduaren 12ko atzeraeraginarekin.
- 2.- ZAEAk isilbidez ukatu zuen eskaera, ez baitzuen ezer erantzun 4 hileko epealdiaren barruan.
- 3.- 2022ko azaroaren 3an, BFAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean zergapekoaren egoitzaren aldaketaren inguruan. 2022ko azaroaren 7an jakinarazi zitzaion ZAEARI.

4.- 2022ko azaroaren 3an bertan, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Kudeaketa Bulegoak txosten bat eman zuen, egoitza-aldaketa onartzen zuena:

5.- Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzea onartu zuen; 80/2022 espediente-zenbakia esleitu zion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu zuen.

6.- Hasierako alegazioen epealdiaren izapidean, ZAEAK amore eman zion demandatzailearen uziari.

7.- Azken alegazio-izapidean, AMTk ere adierazi zuen ados zegoela egoitza fiskala Madrilera aldatzearekin.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio «zergadunen egoitza dela eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Jarduketak artxibatzea.

ZAEAK amore emateak, prozeduran agertu eta aurrera egiteko eskatzen duen hirugarren interesdunik egon gabe, Administrazio Publikoen Administrazio

Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 95. artikuluan ezartzen den bezala (1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua araberatik aplikatu behar da), xedea gerora galtzea dakar, ez dagoelako desadostasunik zergadunaren egoitzari buruz. Beraz, dekretatu behar da gatazka artxiba dadila.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea prozedura beste izapiderik gabe artxibatzen dela, alderdi guztiak ados baitaude zerga-egoitza lurralde erkidera aldatzearekin 2019ko abenduaren 12ko atzeraeraginarekin.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta AMP EOLICA IBERICA SL sozietateari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.